Erabilerari dagokionez, hona hemen datu jakingarri bat: 2012. urte bukaeran, Internet erabiltzen zutenen % 54,3k 15 urte edo gehiago zuen (inkestan, azken hiru hilabeteetan Interneten sartu direnak jo dira erabiltzaitzat). Ehuneko hori urte bat lehenago bildutako datutik (% 54,6) oso gertu dago.

Hala ere, Bilboko biztanle guztiek ez dute hein berean erabiltzen teknologia hori. Eten digitala deritzon hori, batzuen eta besteen arteko aldea, alegia, adina, jarduera-arloa, sexua eta eskolatzeko-maila kontuan hartuta aztertu behar da.

2012an, Bilbon bizi diren gizonezkoen % 59,2k erabili du Internet, eta emakumezkoen batez bestekoa, aldiz, % 50,1koa izan da urte berean; hortaz, azken hori 9,1 puntutan gainditu du gizonezkoenak. Urte bat lehenago, eten digitalaren ondoriozko alde hori ehuneko 13,1 puntukoa zen (% 61,6 eta % 48,5).

Biztanleen adinaren arabera ere alde nabarmenak ikusten dira Interneten erabileran. Bizkaiko 15 eta 24 urte bitarteko gazte ia guztiak (% 96,3) maiz sartzen dira Interneten. Ehuneko hori murriztu egiten da adinak gora egiten duen hein berean. Bestalde, 45 urte edo gehiago dituztenen tartean, kasurako, batez besteko erabilera % 58,1koa izan da.

Internet erabiltzeko xedeari dagokionez, bizkaitar ia-ia guztiak WEBean kontsultak egiteko (% 98,8) eta posta elektronikoa ikusteko sartzen dira (% 88).

Inkestan adierazitakori erreparatuta, agerikoa da baliabide aurreratuak ezagutzen dituzten erabiltzaileen kopurua mantendu egin dela, eta eragiketa eskotarikoak eta gero eta konplexuagoak bideratzen dituztela. Horietako bat merkataritza elektronikoa da, jakina. Hasieran erosketak elektronikoko egiteari errezeloz begiratzen bazioten ere, urteak joan, urteak etorri, ohituz joan dira biztanleak; eta, batez ere, enpresak.

Ondorioz, 2012. urtean, 562,6 mila bizkaitarrek egin dituzte erosketak Internet bidez; 2011n baino gutxiagok, egia esanda, asko gutxiago ez badira ere. Bide horretatik kontratatutako produktu eta zerbitzu gehientsuenak bidaiak eta oporretan ostatu hartzeko lekuak dira, eta horien atzetik, kiroltarako materiala eta jantziak eta etxerako produktuak. Urte batetik besterako gorakada handienak material informatikoa, elektronikako gaiak eta liburuak eta aldizkariak erosten dituztenen artean ikusi dira.

### » Bizkaiko familien ohiko ekipamendu teknologikoa (familien milakoetan)

	2011	2012	Var %
PCa	478,2	451,2	-5,6
Ordenag. eramangarria	483,0	523,5	8,4
PDA / Tablet / Pocket PC	31,3	42,8	36,7

Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. Eustat.

### » 15 urte edo gehiagoko bilbotarren % 54,3k Internet erabiltzen du

### » Internet erabiltzen duten biztanleak (15 urte edo gehiago duten biztanleen %)

	2011	2012
<b>Guztira</b>	<b>54,6</b>	<b>54,3</b>
Emakumeak	48,5	50,1
Gizonak	61,6	59,2
Eten digitala (pp)	13,1	9,1

Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. Eustat.

### » 2012. urtean, 562,6 mila pertsonak zerbitzuren bat erosi edo kontratatu du Internet bidez Bizkaian

Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"
Informazioaren gizartea Bilbon
Ikerketa, garapena eta berrikuntza
Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak
Unibertsitatea, ikerketa iturri

1 Biztanleria	Or.
2 Ekonomia eta enpresa	88
3 Lan-Merkatua	
4 Merkataritza	
5 Turismoa	
6 <b>Berrikuntza</b>	
7 Kultura eta kirola	
8 Hirigintza eta etxebizitza	
9 Garraioa eta ingurumena	
Aurkibidea	
Estatistika eranskina	

## IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA

Ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+b) jarduerak aurrera egiten jarraitzen dute Bizkaian eta Bilbon. Hiribilduan gero eta baliabide gehiago bideratzen dira horrelako jardueretara, bai bertako enpresen aldetik, bai herritarren aldetik ere.

Eustaten Berrikuntzari buruzko azken inkestak emandako datuek erakusten dutenez, Bizkaian 10,1 mila establezimendu dago berritzailetzat har daitezkeenak. Guztira, aurreko urtean zenbatutakoak baino % 27,9 gutxiago dira. Aitzitik, 10 langile edo gehiago dituztenen artean, zifra hori % 12,5 handiagoa da, lurraldean 1,8 mila enpresa berritzaile baitago: tamaina horretako enpresa guztien % 29, hain justu ere.

Batzuek eta besteek I+G+b jardueren arloan egin duten ahalegina ukatzerik ez dago, inbertsioei dagokienez, berrikuntzara, guztira, 279,1 milioi euro zuzendu baitzituzten Bilboko enpresek 2011. urtean. Zenbateko hori Bizkaian xede horietarako egindako gastu guztiaren % 21a da. Lurralde horretan, beraz, nahiz eta establezimendu berritzaileen guztirako kopurua jaitsi egin den, berrikuntzari zuzendutako zenbatekoak igo egin dira: % 8,6 enpresen guztirakoari dagokionez, eta % 2,7 10 langile edo gehiago dituztenei dagokionez.

2011ko datuak aurreko urtekoekin alderatzen baditugu, ordea, egoerak nolabait hobera egin zuela ageri da: Hiribilduko 167 enpresak 2011n I+G jarduerak garatu zituztela jakinarazi dute; hortaz, 2010ean baino % 1,8 gehiago izan ziren arlo horretan aritu zirenak. Horrelako jardueretan 3.729 enplegatu izan zituzten lanean enpresek; horietako % 63, ikertzaileak.

I+G jardueretan egindako gastua 116,3 milioi eurotik gorakoa izan da; beraz, 2010etik % 12,1 igo da. Inbertsio horren xede nagusia, % 62, barne I+G-ko jarduera izan da, hain zuzen ere, eta horren atzetik, makinerian egindako gastua eta kanpoko I+G zerbitzuak erostera zuzendutakoa (azken hori, % 13koa).

Hiribilduko enpresa eta unibertsitateetan ikerketa eta garapen arloetan hainbat ekintza abian dauden arren, eta gastuetan eta langileen kontratazioan egindako ahalegina handia izan den arren, asmakizunei buruzko datuek bizitasuna galdu dute 2011ko adierazleekin konparatuta.

2012. urtean 15 patente-eskaera bideratu dira, 2011n baino % 37,5 gutxiago. Bide beretik, behera egin dute bestelako kategorietan erregistratzeko eskaeren kopuruek: 442 marka komertzial (2011n baino % 4,1 gutxiago), 11 utilitate-modelo, 15 industria-diseinu eta 20 izen komertzial, guztira.

Bilboko enpresek berrikuntzaren alorrean beren aldetik egin duten lanaz gain, herritarren eta Administrazioaren eskutik ere hainbat ekimen etorri dira 2012an, euren ezaugarrien edo xedearen aldetik Hiribilduan jarrera berritzaileak sustatzen nabarmen lagundu dutenak.

Horren harira, ekimen hauek nabarmendu ditzakegu: Business Global Conference 2012 delakoa, berrikuntza arloan erreferentziazko biltzar bilakatu dena; Nonick 2012, Interneteko joerei buruzko biltzarra, edo CIB Bilbao, Bilbao Ekintzak merkataritzaren alorrean berrikuntza sustatzeko abian jarritako programa.

## » Berrikuntza arloan egindako gastua % 4,4 igo da Bilbon, 279,1 milioi eurora arte

» Berrikuntza	2011	2012	% 2011/10
<b>Establezimendu berritzaileak (milakotan)</b>	<b>14,0</b>	<b>10,1</b>	<b>-27,9</b>
10 langile edo gehiagokoak	1,6	1,8	12,5
<b>Berrikuntzaren aldeko jardueretan egindako gastua (milioi eurotan)</b>	<b>1.220,6</b>	<b>1.326,0</b>	<b>8,6</b>
10 langile edo gehiagokoak	1.025,2	1.053,3	2,7

Iturria: Berrikuntzari buruzko Inkesta EUSTAT (Bizkaia).

## » 167 enpresa bilbotarrek I+G jarduerak garatu dituzte, eta, guztira, 116 milioi euroko gastua egin dute 2011n

» I+G	2011	2012	% 2011/10
<b>Gastua I+Gn (milaka €-tan)</b>	<b>103.781</b>	<b>116.306</b>	<b>12,1</b>
<b>I+G jarduerak bideratzen dituzten enpresak (kop.)</b>	<b>164</b>	<b>167</b>	<b>1,8</b>
<b>I+Gn diharduten langileak (kop.)</b>	<b>3.400</b>	<b>3.729</b>	<b>9,7</b>
I+Gn diharduten ikertzaileak (kop.)	2.202	2.358	7,1

Fuente: Encuesta de I+D, Eustat.

» Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak	2011	2012	% 2011/10
<b>Patenteak</b>	<b>24</b>	<b>15</b>	<b>-37,5</b>
<b>Markak</b>	<b>461</b>	<b>442</b>	<b>-4,1</b>
<b>Utilitate-modeloak</b>	<b>14</b>	<b>11</b>	<b>-21,4</b>
Industria-diseinuak	15	15	0,0
Izen komertzialak	46	20	-56,5

Iturria: OEPM.

Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"
Informazioaren gizartea Bilbon
Ikerketa, garapena eta berrikuntza
Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak
Unibertsitatea, ikerketa iturri

1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	<b>Berrikuntza</b>	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	89

## EZAGUTZARI BEREZIKI LOTUTAKO PROFESIALEEN ETA ENPRESEN JARDUERAK

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuetan, berrikuntzarekin eta ezagutzaren gizartearekin zerikusi zuzena daukaten jarduera-arloak batzen dira: informazioaren eta komunikazioen ingurukoak (telekomunikazioak, informatika-zerbitzuak, ikus-entzunezko zein informazio eta edizio zerbitzuak); finantza-zerbitzuen eta aseguruaren ingurukoak; eta jarduera profesional zientifiko eta teknikoaren ingurukoak (zerbitzu juridikoak, kontabilitatea, aholkularitza, arkitektura eta ingeniari, I+G, publizitatea, marketina, etab.).

2012. urte amaieran, 27.546 pertsonak egiten zuten lan sektore horretan (guztirako enpleguaren % 16,5), Hiribilduko 2.302 enpresatan (guztirakoaren % 11,1). Horrek esan nahi du, batetik, % 5,6 jaitsi dela ezagutzari bereziki lotutako lanpostuen kopurua, eta bestetik, portzentajezko 0,5 puntu galdu dituela sektore horrek guztirakoarekiko duen pisan.

Oraindik ere, sektore horretako 10 enplegutik 4 Zerbitzu profesional, tekniko eta zientifikoaren azpisektorearen barnekoak dira (% 40), eta horien artean, erdiak, gutxi gorabehera (% 48,4), zerbitzu juridikoei, kontabilitatekoei eta aholkularitzakoei lotuta daude (5.490 afiliatu).

Informazio eta komunikazio zerbitzuen azpisektorearen barne, berriz, lanpostu gehien (3.438) ematen duen jarduera-arloa informatika zerbitzuena da. Bestalde, finantza-zerbitzuen eta

### » Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

	2011	2012	% 2012/11
<b>Afiliatuak (kop.)</b>	<b>29.190</b>	<b>27.546</b>	<b>-5,6</b>
<b>Informazioa eta komunikazioak</b>	<b>7.916</b>	<b>7.158</b>	<b>-9,6</b>
Telekomunikazioak	1.368	1.242	-9,2
Informatika zerbitzuak	3.752	3.438	-8,4
Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.	2.796	2.478	-11,4
<b>Finantza-zerbitzuak eta aseguruak</b>	<b>9.591</b>	<b>9.046</b>	<b>-5,7</b>
Finantza-zerbitzuak	6.467	5.964	-7,8
Aseguruak eta zerb. laguntzaileak	3.124	3.082	-1,3
<b>Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak</b>	<b>11.683</b>	<b>11.342</b>	<b>-2,9</b>
Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza	5.604	5.490	-2,0
Arkitektura, ingeniari eta I+G zerb.	3.631	3.578	-1,5
Publizitatea eta marketina	1.491	1.329	-10,9
Beste batzuk	957	945	-1,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

aseguruaren azpisektoreari dagokionez, guztirako enplegatuen % 66 ia-ia finantza-jardueretan lanean ari da (5.964 lanpostu).

Erantsitako koadroan ikus daitekeenez, azken urtean enplegatuen kopurua modu nabarmenean jaitsi da hiru azpisektoreetan, batez ere, informazioa eta komunikazioen saillean (-% 9,6), baina baita finantza-zerbitzuen eta aseguruaren (-% 5,7) eta zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoaren ere (-% 2,9), hurrenkera horretan.

Orobat nabarmentzekoak dira ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerbitzuetan zein publizitate eta marketin zerbitzuetan etenik gabe galdu diren lanpostuak (-% 11,4 eta -% 10,9, hurrenez hurren).

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuen sektorean soldatapeko langileak dituzten enpresak 2.302 pertsona enplegatu dituzte, guztira. Horrek esan nahi du kopurua % 3,2 jaitsi dela 2011rekin alderatuta. Jaitsierarik handiena informazio eta komunikazioen azpisektorean (-% 6,4) nabaritu dute, hain zuzen ere, eta jarduera-arloei begira, arkitektura, ingeniari eta I+G zerbitzuetan, alor horretan lan egiten dutenek % 20,3 egin baitute behera.

### » Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

	2011	2012	% 2012/11
<b>Soldatapeko langileak dituzten enpresak (kop.)</b>	<b>2.377</b>	<b>2.302</b>	<b>-3,2</b>
<b>Informazioa eta komunikazioak</b>	<b>407</b>	<b>381</b>	<b>-6,4</b>
Telekomunikazioak	49	49	0,0
Informatika zerbitzuak	189	176	-6,9
Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.	169	156	-7,7
<b>Finantza-zerbitzuak eta aseguruak</b>	<b>380</b>	<b>359</b>	<b>-5,5</b>
Finantza-zerbitzuak	90	80	-11,1
Aseguruak eta zerb. laguntzaileak	290	279	-3,8
<b>Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak</b>	<b>1.590</b>	<b>1.562</b>	<b>-1,8</b>
Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza	979	971	-0,8
Arkitektura, ingeniari eta I+G zerb.	300	239	-20,3
Publizitatea eta marketina	206	203	-1,5
Beste batzuk	105	102	-2,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"
Informazioaren gizartea Bilbon
Ikerketa, garapena eta berrikuntza
Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak
Unibertsitatea, ikerketa iturri

1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	<b>Berrikuntza</b>	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	90

## UNIBERTSITATEA, IKERKETA ITURRI

Azken urteetan, gero eta agerikoagoa izan da unibertsitateak izan duen parte-hartzea; bereziki, ezagutza sortzen. Ezagutza hori gero enpresetara eramatea eta erabiltzea funtsezkoa da hirien garapen ekonomikoarentzat.

Hain zuzen, unibertsitateek bideratutako ikerketa eta berrikuntza teknologikoaren emaitzak patenteen bitartez neur daitezke, lan horiek zein egoeratan dauden edo zer nolako bilakaera duten jakiteko adierazle baliagarria baitira.

UPV/EHUK emandako azken datuen arabera, 2011. urtean 90 patente erregistratu ziren; aurreko urtearekin alderatuta nabarmen igo da horien kopurua, beraz.

Euskal Herriko Unibertsitateak hainbat fakultate ditu Bilbon; egun, Sarrikon, Elkanon, La Casillan eta San Mamesen. 2011-2012ko ikasturtean 10.718 lagun aritu ziren UPV/EHUn ikasten Bilbon; hau da, aurreko ikasturtean baino % 14,8 gutxiago, batez ere, Irakasle Ikasketen Fakultatea Eskola Leioako Campusera eraman zelako.

Ikasleen erdiak baino gehiago, % 60,6, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean eta Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen Goi Eskola Teknikoan aritu dira (3.209 eta 3.288, hurrenez hurren), nahiz eta azken ikasturtean ikasketa horietan egindako matrikulen kopuruak behera egin duen.

Horien ondotik, hirugarren tokian, Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola dago, 2.700 ikaslerekin. Honek % 27,3ko gorakada izan du. Eta azkenik, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak 1.521 ikasle izan ditu ikasturte horretan, aurrekoan izandako kopuru bera, ia-ia.

Kontuan izan behar da, gainera, Deustuko Unibertsitateko Bilboko campusa erdigunean bertan dagoela, Guggenheim Museoaren aurrean. Hona hemen campus horretan dauden zentroak: eraikin nagusia edo Literarioa –Zuzenbide eta Letra ikasketen egoitza–;

Komertzialaren eraikina –Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea–, eta ESIDE eraikina –ingeniaritzak eta Mendeurreneko Eraikina daude bertan–. Ehun urtetik gorako eraikin historiko hauen aurrean, Liburutegi-IIBZ, Ikasteko eta Ikertzeko Baliabideen Zentro berria dago. Campusaren barne integratuta dago, itsasadarra gainetik zeharkatzen duen Arrupe Aitaren zubiri esker.

2012. urtean, 2012-2013ko ikasturteko 7.500 ikasle baino gehiago hartu ditu Bilboko campusak. Berezi aipatzekoak dira Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko 1.938 ikasleen kopurua eta Enpresa Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Fakultateko 1.882 ikasleena. Betiere kopuruei begira, orobat nabarmendu behar dira beste fakultate edo ikasketa hauetan matrikula egin dutenenak: Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (1.571), Zuzenbide Fakultatea (1.124), Ingeniaritza Fakultatea (899), Teologia Fakultatea (119) eta Aisialdi, Kultura eta Elkartasuna Ikasketak (50).

## » Deustuko Unibertsitateak 7.500 ikasle baino gehiago ditu Bilbon


» Deustuko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko campusa)	2011
<b>Deustuko Unibertsitatea</b>	<b>7.583</b>
Zuzenbide Fakultatea	1.124
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.571
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.938
Enpresa Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Fakultatea	1.882
Ingeniaritza Fakultatea	899
Teologia Fakultatea	119
Aisialdi, Kultura eta Elkartasuna Ikasketak	50

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

## » Irakasleen Unibertsitate Eskola Leioako Campusera eramatearen ondorioz, Bilbon egon diren unibertsitate ikasleen kopurua jaitsi egin da

### » UPV/EHUK 2000tik 2011ra aurkeztutako patenteen bilakaera

Espainiako patenteak  
Europako patenteak  
PTC  
AEBko patenteak  
Japoniako patenteak  
Beste batzuk



Fuente: UPV/EHU EN CIFRAS 2011.

### » UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko campusa)

	2011	2012	% 2012/11
<b>UPV/EHUko Bilboko campusa, guztira</b>	<b>12.579</b>	<b>10.718</b>	<b>-14,8</b>
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fak.	3.506	3.209	-8,5
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	3.339	3.288	-1,5
Industria Ingeniaritza Teknikoko Unib. Eskola	2.121	2.700	27,3
Irakasleen Unib. Eskola	2.085		
Enpresa Ikasketen Unib. Eskola	1.528	1.521	-0,5

Iturria: UPV/EHU ZENBAKITAN 2011.

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

Patenteak eta markak (kop.)

» **Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak:  
Soldatapeko langileak dituzten enpresak**

	2010	2011	2012
<b>Soldatapeko langileak dituzten enpresak (kop.)</b>	<b>2.388</b>	<b>2.377</b>	<b>2.302</b>
<b>Informazioa eta komunikazioak</b>	<b>408</b>	<b>407</b>	<b>381</b>
Telekomunikazioak	47	49	49
Informatika zerbitzuak	175	189	176
Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.	186	169	156
<b>Finantza-zerbitzuak eta aseguruak</b>	<b>384</b>	<b>380</b>	<b>359</b>
Finantza-zerbitzuak	88	90	80
Aseguruak eta zerb. laguntzaileak	296	290	279
<b>Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak</b>	<b>1.596</b>	<b>1.590</b>	<b>1.562</b>
Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza	975	979	971
Arkitektura, ingeniari-tza eta I+G zerb.	317	300	239
Publizitatea eta marketina	207	206	203
Beste batzuk	97	105	102

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

Patenteak eta markak (kop.)

1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	<b>Berrikuntza</b>	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	<b>Estatistika eranskina</b>	<b>92</b>

» **Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak:**  
**Afiliatuak**

	2010	2011	2012
<b>Afiliatuak (kop.)</b>	<b>30.009</b>	<b>29.190</b>	<b>27.546</b>
<b>Informazioa eta komunikazioak</b>	<b>8.416</b>	<b>7.916</b>	<b>7.158</b>
Telekomunikazioak	1.374	1.368	1.242
Informatika zerbitzuak	3.906	3.752	3.438
Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.	3.136	2.796	2.478
<b>Finantza-zerbitzuak eta aseguruak</b>	<b>9.746</b>	<b>9.591</b>	<b>9.046</b>
Finantza-zerbitzuak	6.626	6.467	5.964
Aseguruak eta zerb. laguntzaileak	3.120	3.124	3.082
<b>Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak</b>	<b>11.847</b>	<b>11.683</b>	<b>11.342</b>
Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza	5.506	5.604	5.490
Arkitektura, ingeniari-tza eta I+G zerb.	3.711	3.631	3.578
Publizitatea eta marketina	1.672	1.491	1.329
Beste batzuk	958	957	945

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Servicios profesionales y empresariales intensivos en conocimiento: Empresas con personal asalariado
Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak
Patenteak eta markak (kop.)

1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	<b>Berrikuntza</b>	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	<b>Estadistika eranskina</b>	<b>93</b>

» **Patenteak eta markak (kop.)**

	2010	2011	2012
Patenteak	20	24	15
Markak	380	461	442
Utilitate-modeloak	13	14	11
Industria-diseinuak	9	15	15
Izen komertzialak	38	46	20

Iturria: OEPM.

# Kultura eta kirola



Sarrera

Udal jarduera kulturala

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoak

Liburutegiak

Kirola

7

## 2012

Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

» Aurkibidea

» Estatistika eranskina

- 1 Biztanleria
- 2 Ekonomia eta enpresa
- 3 Lan-Merkatua
- 4 Merkataritza
- 5 Turismoa
- 6 Berrikuntza
- 7 **Kultura eta kirola**
- 8 Hirigintza eta etxebizitza
- 9 Garraioa eta ingurumena

# Kultura eta kirola

## Sarrera

Udal jarduera kulturala

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoak

Liburutegiak

Kirola



1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	95

*“Pertsona orok komunitateko bizitza kulturean askatasunez parte hartzeko, arteaz gozatzeko, eta zientziaren aurrerapenean eta hortik eratortzen diren onuretan parte hartzeko eskubidea du” (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikulua lehena paragrafoa).*

Kulturaren Behatokiaren<sup>1</sup>, arabera, Bilbo estatuko hirugarren hiria da, bertako eskaintza kulturalaren kalitate eta berrikuntza mailari dagokionez. Bilboren aurretik, Madril eta Bartzelona besterik ez daude. Fundazio Garaikideak –Behatokiaren bitartez– kulturaren arloan ibilbide aski ezaguna izan duten profesionalak biltzen ditu lan horretarako. Aditu talde horren esku uzten du, beraz, azterketa zehatza egitea, estatuan kultura zertan den jakiteko.

Besteak beste, Kulturaren Behatokiak xede hau du: adierazle finkoen sorta bat oinarri hartuta, autonomia erkidego eta hiri nagusiek bideratzen dituzten jarduera kulturalen jarraipena eta balioztapena egitea, eta, aldi berean, urtean zehar erakundeek gauzatu dituzten ekintza kultural aipagarrienei erreparatzea.

Behatokiaren azterlanean, aditu horiei 2012ko erakunde eta gertakari kultural garrantzitsuenak aipatzeko eskatu zaie. Galdera guztiz irekia izan da, ez baita izenik proposatu. Bada, galdera horri erantzuteko, adituen taldeak 185 erakunde, enpresa eta kultur programa ezberdinen izenak eman ditu. Horiek guztiak orotara jaso dituzten aipamen kopuruaren arabera osatutako zerrendan, Guggenheim museoa 11. tokian dago.

Beste behin, beraz, argi geratu da eragile guztiek eta bereziki administrazioko kultur erakundeek hiribilduaren kultur arloa bultzatzeko ahalegin handiak egin dituztela.

Eta ahalegin horien artean, herritarren nahien gertu izateagatik, Udalak bideratutako lanak eta egindako inbertsioa nabarmendu beharra dago.

(1) Fundazio Garaikideak egina, kulturaren izen handia duten profesionalen eta herri administrazioetako kultura sail eta erakundeetako arduradunekin osatutako aditu talde bati galdetuta, hain zuzen ere.

# Kultura eta kirola

Sarrera

Udal jarduera kulturala

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoak

Liburutegiak

Kirola



1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	96

## UDAL JARDUERA KUTURALA

Bilboko Udalak 2005. urtean Kulturaren Agenda 21 ekimenarekin bat egin zuen. Agenda 21 delakoa, hiriek eta tokiko gobernuek kulturaren garapenaren aldeko konpromisoa har dezaten nazioarte mailan sortutako lehen agiria da. Hain zuzen ere, kulturaren garapenak globalizazioa herritarren zerbitzura jartzeko ahalmena duelako eta kultura irekia eta anitza sustatzeko indarra duelako sortu da.

Bilbok, Agenda 21 agiriaren sinatzaileetako bat izanik, bere egiten du kultura hirigintza politiken erdigunean jartzeko konpromisoa. Horren ildotik, irizpide, konpromiso eta gomendio jakin batzuen aldeko hautua egin du; denak ere, kultura tokian-tokian garatzeko xedea dutenak, gizartearen eskubide kolektibotzat hartzen den neurrian.

Argi dago, beraz, kultura aniztasunaren alde egiteak eta kulturaren ikuspegi irekia sustatzeak duen garrantzia, kultura sormena eta parte-hartzea guztiontzat balia-garria baita.

2012. urtean zehar, udalaren jarduera kulturalak sei ildo nagusi izan ditu: kultura eta aisialdi ekitaldiak antolatzea; Liburutegien eta Udal Artxiboaren sarea sendotzea; kultura-egitarauen alde egitea; arte sormena eta artisten trebakuntza sustatzea; auzoetan hainbat egitarau eskaintzea eta hiriko artearen arloko sektoreekin lankidetzak ahalbidetzea.

Ondoko koadroan ageri denez, ildo horiei jarraituta 40 proiektu garatu dira, eta horien bitartez 1.554 ekitaldi gauzatu dira, guztira, 884.127 lagun batu dituztenak.

### » Udal jarduera kulturalaren adierazleak (2012)

	Proiektuak	Ekitaldi kop.	Berlaratutakoak
Kultura eta aisialdi ekitaldiak	54. Zinebi Bilboko Kalealdia Kaleszena Txotxongiloen Nazioarteko XXXI. Jaialdia XIV. BAD FANT 18 XIII. BilbaoPoesia	280	54.131
Liburutegi eta Udal Artxiboa sendotzea	Udal Liburutegien Sarea Udal Artxiboa	295	700.641
Kultura-egitarauen alde egitea	Bidebarrieta Kulturgunea Liburu azokak bultzatzea XIII. Arte eta Kultura Topaketetan laguntzea Argitalpenak Bilbao Izan XXIV. Bilbainada Lehiaketa Kultura 18 Kultura arloko diru-laguntzak Hitzarmenak	399	48.831
Arte sormena eta artisten trebakuntza sustatzea	Bilbao Eszena Artistak egoitza erregimenean hartzeko 4. ekimena Bilboko Zirkuitua Bilboko Haur Antzerki topaketak Kultura lantegiak Literatura lehiaketak Bilbao Film Commission	133	14.133
Kultur Barrutik Auzoetako egitarauak osatzea	8 barrutiko egitarauak Expodistrito Bilbao Distrito Jazz Gabonetako abesbatzen lehiaketa Bilbao Distrito Foto 11 Dantza Plazetan XXVIII. Udaberriko Bertso Saiok	447	66.391
Artearen arloko sektoreekin lankidetzak ahalbidetzea	Ikusmen-arteak Arte eszenikoak		
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.554</b>	<b>884.127</b>

Iturria: Bilboko Udala.

# Kultura eta kirola

Sarrera
Udal jarduera kulturala
<b>Antzerki, dantza eta musika jarduerak</b>
Museoak
Liburutegiak
Kirola



1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	<b>Kultura eta kirola</b>	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	97

## **ANTZERKI, DANTZA ETA MUSIKA JARDUERAK**

### » **Bien artean, Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregiak 478.310 ikusle izan dituzte orotara 2012an**

Antzerki eta musika jarduerak ugari dira Bilbon eta hainbat tokitan egiten dira. Guztira, eszena-ekitaldietarako 10 guneta 6 kontzertu-areto daude; aipagarrienak, Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregia.

Bilboko Antzerki eta dantza garaikideko XIV. BAD (Bilbao Antzerki Dantza) jaialdia, 54 urte bete dituen Zinebi jaialdia,

Bilbao Zirkuitua, Txotxongiloen Nazioarteko XXXI. Jaialdia eta Bilbao BBK Live musika jaialdia hiriak eskaintzen eta garatzen duen kultur jardueraren adibide batzuk baino ez dira.

**Arriaga Antzokian**, adibidez, nahiz eta 2012. urtea aski gogorra izan den kulturaren eremuan lan egiten duten erakundeentzat, guztira 57 ikuskizun antolatu dira. Horiekin guztiekin, urtean zehar 217 emanaldi eskaini dira, eta denetara 151.265 ikusle batu dituzte. Ikuskizun bakoitzeko batez besteko 697 ikusle izan ditu, beraz. Aurten antzokiak 183 egunez ireki ditu ateak.

Eskainitako 57 ikuskizun horien artean, 11 antzerki muntaketa, 11 dantza ikuskizun, 19 kontzertu, 5 opera, 3 zarzuela, 2 musikal eta mota anitzeko beste 6 ikuskizun egin dira.

2012. urtea benetan bikaina izan da **Euskalduna Jauregi**arentzat, ikusle eta biltzar handien kopuruari zein guztirako fakturazioari dagokionez inoizko zifrarik onenak lortu baititu. Gainera, estatuko Biltzar Jauregien buru izaten jarraitzen du, bilera eta emanaldi kopuruen aldetik.

Musika jarduerak eta gainerako ikuskizunek 327.045 ikusle batu dituzte 393 emanalditan.

Jauregira emanaldi gehien ekarri duen jarduera antzerkia izan da, ordea: guztira, 161. Horrez gain, aipagarriak dira, baita ere, Orkestra eta Abesbatzen 71 kontzertuak, 32 Opera emanaldiak, Ballet eta Dantza alorreko 8 ikuskizunak eta orotariko 32 Kontzertuak.

Nolanahi ere, hiribilduan beste hainbat kontzertu-areto eta eszenatoki dago; kasurako, Bilbao Eszena, ARTERIA Campos Elíseos Antzokia, AlhóndigaBilbao, Bilborock-La Merced, hACERIA aretoa, Fundizioa. Pabiloi 6, Kafe Antzokia, Azkena aretoa eta Santana 27.

# Kultura eta kirola

Sarrera
Udal jarduera kulturala
Antzerki, dantza eta musika jarduerak
Museoak
Liburutegiak
Kirola



1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or. 98
	Estatistika eranskina	

## MUSEOAK

### » Guggenheim Museoak eta Arte Eder Museoak 1.309.759 pertsona erakarri dituzte

Bilbon museoetako jarduerak indar handia du, 12 museo ez ezik, arte-galeria anitz ere baitago. Horien guztien buru, jakina, Guggenheim Museoa eta Arte Eder Museoa dira; lehena, nazioartean duen oihartzunarengatik, eta bigarrena, bere baitan gordetzen duen arte bilduma bikainarengatik.

**Guggenheim Bilbao Museoak** bisitari kopurua handitzea lortu du 2012an, kulturaren sektoreko kontsumoa kolokan izan den urte honetan. Museoaren bisitarien datua % 5 igo da, beraz: guztira, 1.014.104 bisitari jaso ditu (2011n baino 51.746 gehiago).

Museo honetan ohikoa denez, bisitari horietako gehienak atzeritarrak izan dira; % 64, zehazki esateko. Batez ere, Frantziatik, Erresuma Batutik, Alemaniatik, Amerikar Estatu Batuetatik eta Italiatik etorri dira. Hori bai, azken lau herrialdeetako datuak frantziarren datutik oso urrun daude. Gainerako % 36 Estatutik etorritakoak dira, eta horien artean, Euskal Herrikoak izan dira gehientsuenak.

Urte honetako datu onak erakusketa honi zor dizkio Guggenheim Bilbao Museoak: "David Hockney: ikuspegi zabalago bat". Ia-ia 550.000 pertsona erakarri zituzten artista horren lanek, erakusgai egon ziren epean.

Bestalde, **Bilboko Arte Eder Museoak** bere markarik hoberena hautsi du 2012an, bisitari kopuruari dagokionez. Urte honetan prestatu duen erakusketa-egitarau sendoarekin 295.655 bisitari ekarri ditu museora; hau da, aurreko urtean baino % 13,7 gehiago. Horien guztien % 76 EAEko toki ezberdinetatik etorri dira.

Esan bezala, 2012ko datuak Museoak inoiz lortu duen marka onena hautsi du. Seguruenik, Fernando Boteroren erakusketak horretan lagunduko zuen, Museoaren historian bisitari gehien erakarri dituen bigarren erakusketa izan baita, Antonio Lopezen 2011ko errerealismoaren atzetik.

Bilboko museoaren eskaintza izen handiko beste hainbat gunerekin osatzen da. Hona hemen aipagarrienak: Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa (14.589 bisitari), Arkeologi Museoa (12.945 bisitari) eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa.

» Museoak	2011	2012	% 2012/11
Museo kop.	12	12	0
Museoak (Bisitariak)			
Guggenheim Museoa	962.358	1.014.104	5,4%
Arte Eder Museoa	259.968	295.968	13,7%

Iturria: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Eder Museoa.

# Kultura eta kirola

Sarrera
Udal jarduera kulturala
Antzerki, dantza eta musika jarduerak
Museoak
Liburutegiak
Kirola



1 Biztanleria
2 Ekonomia eta enpresa
3 Lan-Merkatua
4 Merkataritza
5 Turismoa
6 Berrikuntza
7 Kultura eta kirola
8 Hirigintza eta etxebizitza
9 Garraioa eta ingurumena
Aurkibidea
Estatistika eranskina

## LIBURUTEGIAK

### » Liburutegien sareak % 19,3 bisitari gehiago izan ditu 2012an

Bilbon liburutegi, hemeroteca eta dokumentazio- eta ikerketa-zentroen eskaintza paregabea dago. Udal Liburutegien sare zabala horren erakusgarri da, hain zuzen ere. Batez ere, kontsultak egiteko eta liburu eta aldizkariak maileguan hartzeko aukera ematen dute, nahiz eta zenbaitetan filmak eta musika ere eskuragarri dauden.

Hiriko liburutegi-zerbitzu gehientsuenak Bidebarrietako Liburutegi Nagusiak ematen baditu ere, horren osagarri, hainbat barrutitan banatutako beste 13 liburutegi daude; besteak beste, Begoña, Deustu, Uribarri, Txurdinaga-Otxarkoaga, Ibaiondo, Errekalde eta Basurtu-Zorrotza. Horiez guztiez gain, Bilbao Musika liburutegi espezializatua dago (liburutegiko funtsak musika edukiz besterik ez daude osatuta), baita Buiako liburutegi-zerbitzugunea ere.

2012. urtean, liburutegiek % 19,3 bisitari gehiago izan dituzte (14.945 bisita), eta,aldi berean, liburutegi-txartela dutenen kopurua ere % 4,5 igo da. Batez beste, bisitari bakoitzak 6,6 bisita egin ditu 2012an, 2011ko ratiotik gertu, eta beste datu esanguratsu batzuk aipatzearen, bildumaren tamaina handitu dela eta funtsen mailegu gutxiago egin direla aipatuko dugu.

Arestian esan bezala, Bidebarrietako Liburutegi Nagusia da liburutegi-zerbitzu gehien ematen dituen: 2012an liburutegietara egindako bisita guztien % 40,3 bertara egin dituzte erabiltzaileek, eta denetara egindako maileguen herena ere bertan egin da. Beste liburutegien artean bisitarien kopurua gehien hazten ikusi dutenak –gainerakoek baino askoz gehiago, gainera– San Adriangoa, Errekaldekoa eta Otxarkoagakoa izan dira.

Kudeaketa publikoko zerbitzuen artean ezin dira aipatu gabe utzi Bizkaiko Foru Liburutegiaren 300.000 liburuak, ezta museo azpiegiturei lotutako beste funts batzuk (Arte Eder Museoa, Guggenheim Museoa, Euskal Museoa...) edota bestelako gune batzuenak ere (AlhondigaBilbaoko Mediateka, Azkue Biblioteka), baliabide sare zabala osatzen laguntzen dutenak.

### » Liburutegiei buruzko adierazleak

	2011	2012	% 2012/11
Bertaratutakoak	677.100	692.045	19,3
Maileguak	382.184	375.265	-1,8
Bildumaren tamaina	404.331	415.858	2,8
Txartela duten erabiltzaileak	100.363	104.863	4,5

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

### » Liburutegiei buruzko adierazleak (2012)

	Bisitak	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak
<b>GUZTIRA</b>	<b>692.045</b>	<b>104.863</b>	<b>375.265</b>	<b>415.858</b>
Bidebarrieta	278.979	37.098	131.701	130.846
Deustu	97.413	14.238	50.661	28.011
San Inazio	38.641	7.144	28.103	21.940
Zurbaranbarri	8.013	2.507	8.001	7.886
Castañós	22.807	1.762	13.440	5.722
Otxarkoaga	21.281	3.270	12.219	16.162
Begoña	76.997	14.098	53.177	32.165
San Adrian	6.463	2.079	5.978	7.036
San Frantzisko	21.552	4.085	10.223	16.246
Zabala	4.019	898	4.428	4.390
Ibaialde	24.164	1.287	8.795	6.954
Irala	14.179	2.315	11.600	9.782
Errekalde	30.706	8.749	13.365	14.309
Zorrotza	33.004	4.321	19.061	14.953
Buia	114	25		1.373
Bilbao Musika	13.743	987	4.513	8.375
Garellanoko liburu-gordailua				89.708

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

# Kultura eta kirola

Sarrera

Udal jarduera kulturala

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoak

Liburutegiak

Kirola



1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	100

## KIROLA

### » “2012ko Kirolaren Europako Hiriko” polikiroldegietan abonua dutenak 97.056 dira

2012. urtean, Bilbok “Kirolaren Europako Hiriaren” izendapena lortu izana ospatu du, nola eta saria jasotzera eraman duten arrazoiak sendotuz, hain zuzen ere<sup>2</sup>. Horrela, bada, guztira 60 kirol ekitaldi baino gehiago bultzatu ditu Udalak, kirola sustatzeko eta horren aldeko konpromisoa berresteko. Arlo publikoak zein pribatuak kirolean inbertitzeko egindako ahaleginen emaitza instalazio modernoak eskura izatea eta kalitatezko kirol eskaintza osatzea izan da.

Hortaz, honako hauek sartzen dira herritarren eskura jarritako kirol ekipamenduen barne: 10 udal polikiroldegi eta 20 igerileku, 13 pilotaleku, 24 gimnasio, 21 tenis-pista eta 4 futbol-zelai.

2012. urtean zehar 97.056 lagunek eskatu dute abonua polikiroldegietako zerbitzuez gozatzeko, eta horiek, guztira, 2 milioi aldiz sartu dira instalazioetan.

Horrez gain, Bilbo kirol arloko hainbat ekimenentzako egoitza izan da; aipagarrienak, beste askoren artean, hauexek: III. Bilbao Triathlon proba, Nazioarteko Milia, 10.000 metroko Europako Kopa, Herri Krosa edo Euskal-Gym ekimenaren V. edizioa.

(2) Kirolaren Europako Hiriburua Elkarteak (ACES) ematen du urtero sari hori.

estadistika eranskina

# Kultura eta kirola

Museoak (bisitariak)

Liburutegiei buruzko adierazleak

1	Biztanleria
2	Ekonomia eta enpresa
3	Lan-Merkatua
4	Merkataritza
5	Turismoa
6	Berrikuntza
7	Kultura eta kirola
8	Hirigintza eta etxebizitza
9	Garraioa eta ingurumena
	Aurkibidea
	Estadistika eranskina

Or.  
101

» **Museoak (bisitariak)**

**2010**

**2011**

**2012**

	2010	2011	2012
Guggenheim	956.417	962.358	1.014.104
Arte Eder Museoa	191.962	259.968	295.968

Iturria: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Eder Museoa.

estadistika eranskina

# Kultura eta kirola

Museoak (bisitariak)

Liburutegiei buruzko adierazleak

1	Biztanleria
2	Ekonomia eta enpresa
3	Lan-Merkatua
4	Merkataritza
5	Turismoa
6	Berrikuntza
7	Kultura eta kirola
8	Hirigintza eta etxebizitza
9	Garraioa eta ingurumena
	Aurkibidea
	Estadistika eranskina

Or.  
102

» **Liburutegiei buruzko adierazleak**

	2010	2011	2012
Bertaratutakoak	754.166	677.100	692.045
Maileguak	416.830	382.184	375.265
Bildumaren tamaina	386.944	404.331	415.858
Txartela duten erabiltzaileak	94.174	100.363	104.863

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

# Hirigintza eta etxebizitza

Hirigintza

Etxebizitza

Higiezin eskaintza



# 8

## 2012


Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

- » Aurkibidea
- » Estatistika eranskina

- 1 Biztanleria
- 2 Ekonomia eta enpresa
- 3 Lan-Merkatua
- 4 Merkataritza
- 5 Turismoa
- 6 Berrikuntza
- 7 Kultura eta kirola
- 8 Hirigintza eta etxebizitza
- 9 Garraioa eta ingurumena

Hirigintza eta etxebizitza

# Hirigintza eta etxebizitza



# 8

Hirigintza	»	Azpiegitura nagusiak
Etxebizitza		
Higiezin eskaintza		

1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	104

## HIRIGINTZA

### AZPIEGITURA NAGUSIAK

Bilboko hiribilduak eraldaketa prozesu handi batean murgilduta jarraitzen du, batez ere, azpiegiturak eraikitzekeo plangatik eta martxan jarritako beste egitasmo berezi batzuegatik. Proiektu horiek, denak ere, hiria erakargarriago bihurtzeko eginak dira, bisitarien zentzuzko zein herritarrentzat.

Oro har, ahalegin nabarmena egiten ari da Bilbon, modernitatearen eta ongizatearen erreferente bilaka dadin, hiribilduarentzat estrategikoak izango diren azpiegiturak eraikiz eta eraberrituz. Horren adibide dira Zorrotzaurreko IMQ zentroko osasun-zerbitzu berritzaileak, Erriberako Merkatuaren eraberritzea edo Euskalduna Jauregia zabaltzeko lanak.

Era berean, Auzokide plana bezalako proiektuek auzoak hobetzen eta eraldatzen laguntzen dute, herritarren parte-hartzea sustatzen baitute.

Aurrera begira, epe ertain eta luzera, hirigintzako hainbat proiektu aurreikusita daude, Bilbok hiri-birsorkuntzaren aitzindarietako bat izaten jarraitu dezan. Aipagarrienak hauek dira: Zorrotzaurreko lanak, UPV/EHUko Bizkaiko Unibertsitate Campusaren zabaltzea Bilbon, Garellanoko Hiri-eraberritzea plana, Ola-beaga eta Zabalgunea oinezkoentzako lotzeko plana eta San Mames-Barria futbol zelai berria.

### Erriberako Merkatua

Hiru urteko lanen ondoren, azkenean inauguratu da merkatu berria. Historian zehar, Erriberako merkatua Hiribilduaren jardura komertzialaren gune nagusietako bat izan da. Egindako berriztatzeari esker, antzinako garaietako xarma eta ospea berreskuratu ditu 2012. urte honetan.

Merkatuak lanak hasi zireneko postu kopuru bera mantentzen du (59), baina bada nobedaderik, behin obra guztia bukatuta: produktuak solairuz solairu banatuta eskaini ordez, halako merkatuetan egin ohi den bezala, Erriberakoak solairu bakoitzean denetariko produktuak eskaintzen ditu.

Bestalde, Pedro Ispizuak diseinatutako eraikin honen erabateko eraberritzearekin 1.400 metro koadro libre utzi dira, beste xede batzuetarako eta hiriarrentzat estrategikoak diren jarduerak garatzeko erabili daitezkeenak.

### Igualatorio Mediko Kirurgikoa (IMQ - Zorrotzaurre)

Osasun zentro hau izen handiko bi arkitektoen lana da: Carlos Ferrater eta Alfonso Casares. Zorrotzaurre birsortzeko prozesuaren baitan eraikia, zentroak Euskadiko osasun zerbitzu pribatuaren erreferentzia bilakatzea du xede nagusia.

2012. urtean inauguratutako eraikin honek 9.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila hartzen du, eta 26.000 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera. Besteak beste, honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: ospitaleratzeak, ZIU, Kanpo kontsultak, Eguneko ospitalea, Larrialdiak, Kirurgia saila, Obstetria saila, Unitate onkologikoa, Irudi bidezko diagnostikoen saila, Medikuntza nuklearra eta Interbentzionismo baskularra. Punta-puntako teknologiarekin lan egiten da bertan; izan ere, 85 milioi euroko inbertsioa egin baita zentroa martxan jartzeko.

### Euskalduna Jauregia

Euskalduna Jauregiak, Biltzar eta Musika Jauregiak, 1999. urtean ireki zituen ateak, eta orduz geroztik Bilboko bandera-ontzietako bat izan da. Hain zuzen, Federico Soriano eta Dolores Palacios arkitektoek beti eraikitze bidean dagoen ontzi baten itxura har zezan diseinatu zuten horrela, Euskalduna ontzietako diketik bertatik kroskoa aterez egongo balitz bezala.

Orain arte 53.000 m<sup>2</sup> hartu izan dituen azpiegitura hau zabaltzeko lanak 2012. urtean hasi ziren, gaur egungo eraikinaren ekialdera dagoen zabaldegian 2.200 m<sup>2</sup>-ko gune berria kokatzeko. Zabaltzeak ez du, hala ere, eraikinaren fatxada ezagun eta bereizgarriaren irudi orokorra ezertan aldatu; Itsasadarrera eta urmaelera ematen duen eraikinaren bista lehengo bera da, beraz. Gune berria zabalera handikoa da, eta zuzenean erakusketa hall-arekin bat egiten duenez, erakusketetarako 4.200 m<sup>2</sup>-ko eremua irabazi du jauregiak.


### Poliziaren eta suhiltzaileen egoitza berriak Miribillan

Tamaina handiko azpiegitura hau 2012ko martxoan inauguratu zen. Bi zati ditu, eta bertan zentralizatuta daude udaltzaingoaren, suhiltzaileen eta anbulantzien udal zerbitzuaren egoitzak.

### Auzokide plana

Bilboko Udalak, auzoak hobetzen jarraitzeko asmoarekin, "Auzokide Plana 2012-2015" martxan jarri du. Egitasmo hori da, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzea eragiteko Bilboko Udalak duen tresnarik eraginkorrena eta indartsuena, bilbotarrek beraiek ezarritako lehentasunen arabera egiten delako plangintza eta garatu eta gauzatzen direlako proiektuak, hiribilduko Barrutiko Kontseiluen bitartez.

Planari jarraiki 48 milioi euroko inbertsioa egingo da lau urtean zehar (1,5 milioi euro barruti eta urte bakoitzeko), eta jarritako diruarekin 170 lan eta hobetze-ekintza gauzatuko dira.



Hirigintza			
Etxebizitza	»	Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	1 2
Higiezin eskaintza			

1	Biztanleria	
2	Ekonomia eta enpresa	
3	Lan-Merkatua	
4	Merkataritza	
5	Turismoa	
6	Berrikuntza	
7	Kultura eta kirola	
8	Hirigintza eta etxebizitza	
9	Garraioa eta ingurumena	
	Aurkibidea	Or.
	Estatistika eranskina	105

## ETXEBIZITZA

### BILBOKO ETXEBIZITZA ETA LOKALEN EZAUGARRIAK

#### Biztanleen errolda eta etxebizitzak

Biztanleen errolda eta etxebizitzak deritzon erregistroa Eustatek hamar urterik behin egiten duen estatistika lan handia da. Biztanleen egitura eta bere ezaugarriak aztertzeaz gain, lurralde edo eremu bakoitzean dauden eraikin eta etxebizitzaren nondik norakoak berariaz biltzen dituen kapitulu bat hartzen du barne.

Estatistika lan horren arabera, Bilboko etxebizitza-parkean 160.283 zegoen 2011n; horietatik 159.973 familia-etxebizitzak ziren, eta 310 besterik ez, establezimendu kolektiboak. Familia-etxebizitzaren artean, % 9,4 hutsik zeuden eta % 1,8 bigarren etxebizitzak ziren.

Gainera, hiribilduko eraikinen % 52,3k 50 urte baino gehiago dituzte, eta horien artean, % 28,3k, mendea baino gehiago.

